

## BAKILAO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lur-zatiak goizeko 08:00etan zozketatuko dira. Lur-zatien prezioa 5 €koa izango da. Pertsonako lur-zati bat zozketatuko da.
2. Antolatzaileek partaideen esku jarriko dute egurra.
3. Bakilaoa egiteko egurrez, gasez, landare-ikatzez edo erre daitekeen beste elementu batez piztutako sua erabil daiteke.
4. Bakilaoa eta haren saltsa jai gunean egin beharko dira, eta lehiaketara aurkeztutako kazolak gunean bertan jan beharko dira.
5. Goiz osoan zehar kazola guztiak aztertuko dituzte antolatzaileek eta jai gunean egin ez diren saltsak eta bakilaoa erabiltzen dituzten partaideak lehiaketatik kanpo utziko dituzte.
6. Kazolen izen ematea 11:00etatik 11:30era izango da.  
Kazola bakoitzeko 5 € ordaindu beharko da.
7. Kazolen aurkezpena 14:00etan izango da
8. Epaimahaia ondoko hauek osatuko dute: sukaldaritzako profesional batek, antolatzaile batek eta parte hartzen duten koadriletako kide batek.  
Kide hori zozketa bidez aukeratuko da.
9. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.
10. Sari banaketa arratsaldeko 18:00etan egingo da.
11. Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri hauek eta lehiaketaren antolatzaileek egin ditzaketan aldaketak eta egokitzapen guztiak onartzen direla esan nahi du.
12. Ibilgailuak goizeko 10:00etan plazatik kanpo egon beharko dira.

### SARIAK:

- |                          |                         |
|--------------------------|-------------------------|
| 1. 200 € eta garaikurra. | 6. 60 € eta garaikurra  |
| 2. 170 € eta garaikurra  | 7. 60 € eta garaikurra  |
| 3. 120 € eta garaikurra  | 8. 60 € eta garaikurra  |
| 4. 100 € eta garaikurra  | 9. 60 € eta garaikurra  |
| 5. 90 € eta garaikurra   | 10. 60 € eta garaikurra |

Lehenengo 30 postuetan sailkatzen diren kazolek saria jasoko dute.